

Adinekoen panorama estatistikoa 2022



Eustat

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

AURKIBIDEA

1.-Biztanleria	2
1.1.- Demografia	2
1.2.- Biztanleriaren zahartze-indizea	4
 2.- Mendekotasuna eta bakarrik bizi diren pertsonak ...	5
2.1.- Mendekotasuna	5
2.2.- Pertsona landunen mendeko pertsonak	6
2.3.- Bakarrik bizi diren pertsonak	7
 3.- Osasun-zerbitzuak eta heriotzak	9
3.1.- Osasun-zerbitzuen erabilera	9
3.2.- Ingresos hospitalarios	9
3.3.- Ospitaleko egonaldiak	10
3.4.- Heriotzak	10
 4.- Ingurumen-kontzientzia	12
 5.- Interneten erabilera	12

1.-Biztanleria


Azken lau hamarkadetan, 1981 eta 2021 artean, 85 urte eta gehiagoko biztanleria 5,3 aldiz biderkatu da Euskal AEn, eta biztanleriaren % 4,1 izatera iritsi da azken urte horretan

1.1.-Demografia

2021/01/01eko zifrek adierazten dute Euskal AEn 65 urtekoak eta gehiagokoak biztanleria osoaren % 23 izan zirela: haietatik, % 57,3 emakumeak (288.716) eta % 42,7 (215.337) gizonak.

65 urteko eta gehiagoko emakumeak biztanleria osoaren % 13,2ra iritsi ziren eta gizonak, % 9,8ra. Bizkaia izan da lurralderik zahartuena (% 23,4), eta, ondoren, Gipuzkoa (% 22,9) eta Araba (% 21,6), Eustaten datuen arabera.

Euskal Aeko 65 urteko eta gehiagoko biztanleria lurralde historikoaren arabera. 2021



INFO GEHIAHO


Euskal AE –biztanleria osoaren % 23rekin–, 2020an, bigarren postuan zegoen Europar Batasunean 65 urteko eta gehiagoko biztanle kopuru handiena (% 20,6) zuten herrialdeen rankingean; aurretik Italia (% 23,2) baino ez zuen, eta Estatuko batezbestekoa (% 19,6) baino ehuneko 3 puntu gehiago zituen.

INFO GEHIAGO

Azken lau hamarkadotan, 1981aren eta 2021aren artean, 65 urteko eta gehiagoko biztanle kopurua 2,5 aldiz biderkatu da Euskal AEn, eta, aldi berrean, adin-tarte gazteenetako biztanle kopuruan beherakada etengabea da.

INFO GEHIAGO

Euskal Aeko biztanleriaren piramidea. 1981 eta 2021



Iturria: Eustat. Panorama demografikoa 2022


Are nabarmenagoa izan zen adin nagusiagoko pertsona kopuruaren gorakada, 85 urte eta gehiagokoena; izan ere, haien kopurua 5,3 aldiz biderkatu da azken 40 urteotan, eta biztanleria osoaren % 4,1 izan da 2021ean. 2021ean, hiltzean batez besteko adina 81 urte izan da; ia 6 urte luzatu da, 2001etik (75,3 urte).

1.2.-Biztanleriaren zahartze-indizea

2021ean, zahartze-indizea % 23,0koa izan zen, emakumeen % 25,6koa eta gizonen % 20,2koa, 65 urte eta gehiagoko pertsonen proportzioa biztanleria osoarekiko neurtuta. Neurri horren arabera, biztanleria gero eta zaharragoa da 2001. urteaz geroztik, eta are nabarmenagoa izan da emakumeen artean, bizi-itzaropen handiagoa dutelako mende honetako azken 20 urteetan.

Euskal AEko biztanleriaren zahartze-indizearen bilakaera. 2001-2021

65 urteko eta gehiagoko biztanleria/guztizko biztanleria



Iturria: Eustat. Biztanleen Udal-Urrolaren Estatistika (BUUE)


2001. urteaz geroztik, 65 urte eta gehiagoko biztanleria osoa ehuneko 5 puntu hazi da, % 18tik % 23ra: sexuen arabera, 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren hazkundera zertxobait handiagoa izan da emakumeen artean. 2021ean, 65 urte eta gehiagoko emakumeak emakume guztien laurdena baino gehiago ziren; adin-talde horretako gizonak 5 gizonetik bat baino gehiago ziren.

2.-Mendekotasuna eta bakarrik bizi diren pertsonak

2021ean, 65 urteko eta gehiagoko 39,1 pertsona mendeko zeuden lan egiteko adina zeukaten 100 pertsonako; bakarrik bizi ziren pertsonen % 43,7k 65 urte eta gehiago zituzten

2.1.-Mendekotasuna

2021ean, adineko pertsonen mendekotasun-indizea honako hau zen: teorikoki mendekoak ziren 39,1 pertsona lan egiteko adina zeukaten 100 pertsonako. Indize hori honela neurtzen da: 65 urteko eta gehiagoko biztanleak ("teorikoki" mendekoak diren biztanleak) 20tik 64 urtera bitarteko biztanleen aldean (biztanleria hori "potentzialki" produktiboa eta aktiboa da edo lan egiteko adinean dago).



2001aren eta 2021aren artean, mendeko pertsonen kopurua, potentzialki aktiboak diren 100 pertsona bakoitzeko, handitu egin da, eta 11,2 pertsona gehiago dira; 2001eko 27,9 mendeko pertsonatik 2021eko 39,1era egin du. Mendeko pertsona horietatik guztietatik, 22,4 emakumeak dira eta 16,7, gizonak.

2001-2021 aldiaren, adineko pertsonen mendekotasunaren hazkundera handiagoa izan zen emakumeen artean gizonen artean baino: mendekotasuna zuten emakumeen kopurua 6,2 handitu zen lan egiteko adinean dauden 100 pertsonako 2001etik; gizonen artean, lan egiteko adinean zeuden 100 lagunekoa mendeko pertsonen kopurua 5,1 igo zen aldi horretan bertan.


2.1.-Pertsona landunen mendeko pertsonak

2021ean, Euskal AEn landunen arteko 118.700 mendeko pertsona inguru bizi ziren, eta, haietatik, 100.100 inguru, alegia, % 84, 65 urtekoak eta gehiagokoak ziren. Edozein adinetako landunen mendeko pertsonen % 65,4 emakumeak ziren, eta gainerako % 34,6 gizonak. Kasuen % 80an, mendekotasuna zuen pertsona ez zen landunarekin bizi.

Mendeko pertsonen lanaldian zaintzeari dagokionez, kasuen % 50,6an ordainsaririk gabeko beste senide batzuek ematen zituzten, % 28,1ean ordainsaria zuen beste pertsona batek eta % 15,7an gizarte-zerbitzuek. Beste zaintzaile mota batzuek emandako zainketak, hau da, senide okupatuak eta bizilagunek edo lagunek emandakoak, aldiz, gutxiengoak izan ziren.

INFO GEHIAGO

Euskal AEko biztanleria landunaren mendekotasuna duten pertsonak, lanaldian duten zaintzaile motaren arabera (%). 2021




Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta

Mendeko pertsonen lanalditik kanpo zaintzeari dagokionez, kasuen % 63,2tan ordainsaririk gabeko beste senide batzuek ematen zituzten zaintzak eta kasuen % 23,8tan senide okupatuek. Ordainsaria zuten beste pertsona batzuek emandako zaintzak (% 7,1) eta gizarte-zerbitzuek emandakoak (% 5,8) izaera marjinalagoa izan zuten.

INFO GEHIAGO

Euskal AEko biztanleria landunaren mendekotasuna duten pertsonak, lanalditik kampo duten zaintzaile motaren arabera (%). 2021




Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta

2.3.-Bakarrik bizi diren pertsonak

270.558 pertsona bakarrik bizi ziren Euskal AEn 2021ean, biztanleria osoaren % 12 baino pixka bat gehiago (% 12,3); haietatik, % 57 emakumeak ziren eta gainerako % 43a, gizonak. Bakarrik bizi ziren pertsonetatik, 118.226k, alegia, % 43,7k, 65 urte eta gehiago zituzten. Adin-talde horretan, pertsonen % 23,5 bakarrik bizi ziren, emakumeen % 30 eta gizonen ia % 15.

INFO GEHIAGO

Bakarrik bizi diren 65 urteko eta gehiagoko Euskal AEko biztaleen sexuen arazoia (emakumeak gizon bakoitzeko), adin-taldearen arabera. 2021



Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika eta Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak

2021ean, 64 urtera arte, bakarrik bizi ziren biztanleetan, gizonak ziren nagusi. 65 urtetik aurrera, emakume kopuru handiagoa bizi zen bakarrik gizon kopurua baino, adin-talde guztietan: 70 eta 74 urte bitartean, bakarrik bizi ziren 3 pertsonatik 2 emakumeak ziren; 75 eta 79 urte bitartean, lautik 3; 80 eta 84 urte bitartean, 5etik ia 4, eta 85 urtetik aurrera bakarrik bizi ziren pertsona guztien % 80.

3- Osasun-zerbitzuak eta heriotzak


65 urte eta gehiagoko pertsonak ospitaleratzeen erdiak ziren 2020an, eta egonaldien % 57

3.1- Osasun-zerbitzuen erabilera

2020an, 222.438 ospitaleratze erregistratu ziren Euskal AEn; haietatik, erdia baino pixka bat gehiago 65 urteko eta gehiagoko pertsonenak izan ziren. Ospitaleratze horiek ospitaleko 2.035.368 egonaldi ekarri zituzten; egonalditzat pertsona bakoitzak ospitaleratuta ematen duen gau bakoitza dela ulertzen da. 65 urteko eta gehiagoko pertsonen egonaldiak kopuru osoaren % 57 izan ziren.

3.2- Ospitaleratzeak

Adinekoak ospitaleratzeko kausa nagusiak zirkulazio-sistemako gaixotasunak eta digestio-sistemako gaixotasunak izan ziren bi sexuetan, eta ondoren, kanpoko kausak emakumeetan, eta tumoreak, gizonetan.



Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-inkesta


Arnas-sistemako gaixotasunak izan ziren bi sexuetan ospitaleratzeen laugarren kausa prebalenteena; ondoren, tumoreak emakumeen artean eta gaixotasun genitourinarioak gizonen artean. COVID-19a ospitaleratzeko zazpigarren arrazoi nagusia izan zen, zazpigarrena emakumezkoetan eta seigarrena gizonetakoetan.

INFO GEHIAGO

3.3- Ospitaleko egonaldiak

65 urteko eta gehiagoko pertsonetan, ospitaleko egonaldiak egiteko kausa nagusiak, bi sexuetan, nahasmendu mentalak eta portaeraren nahasmenduak izan ziren, bai eta zirkulazio-gaixotasunak ere. Nahasmenduak ospitaleko egonaldiako kausa gisa emakumeetan ohikoagoak izan ziren gizonetan baino. Askotan, ospitale psikiatriko espezializatuetakoko egonaldi luzatuak dituzten patologia izaten dira.

Euskal AEko ospitaleko egonaldiaren arrazoi nagusiak (GNS-10) 65 urteko eta gehiagoko biztanlerian, sexuaren arabera. 2020



(*) CIE-10ean COVID-19 bidezko infekzioak kodetzeko larrialdi-kodea

Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-inkesta

Kanpoko arrazoiengatik, arnas-sistemako gaixotasunengatik eta digestio-sistemako gaixotasunengatik ospitaleko egonaldiak ere izan ziren garrantzitsuak emakumeen kasuan; gizonen artean, tumoreak eta arnas aparatuko gaixotasunak izan ziren hirugarren eta laugarren egonaldi-kausak. COVID-19a izan zen, gizonen artean, bostgarren kausarik nagusia 2020an; azken kausa hori, berriz, seigarren prebalenteena izan zen emakumeetan.

INFO GEHIAGO


3.4-Heriotzak

2021ean, Euskal AEn, 23.073 pertsona hil ziren: 11.508 emakume eta 11.565 gizon. Hildako pertsonen batez besteko adina 81 urte izan ziren: emakumeak, batez beste, 84 urterekin hil ziren eta gizonak, 78 urterekin. Emakumeen % 87,4 69 urte baino gehiagorekin hil ziren, eta % 74,6, 79 urte baino gehiagorekin; gizonetan, heriotzen % 76,9 70 urterekin eta gehiagorekin izan ziren, eta % 54,2, 80rekin eta gehiagorekin.

70 urteko eta gehiagoko emakumeen bi heriotza-kausak nagusiak, alegia, zirkulazio-gaixotasunak (heriotza guztien % 29,4 adin-tarte horretan) eta tumoreak (% 17,3), bat etorri ziren gizonen kausa nagusiekin, baina alderantzizko ordenan: tumoreak heriotza guztien % 28,4 izan ziren, eta zirkulazio-gaixotasunak, % 25,3; bi kausa horiek 70 urteko eta gehiagoko gizonen heriotza-tasaren erdia baino gehiago (% 57,7) izan ziren.

INFO GEHIAGO

**Euskal AEko 70 urteko eta gehiagoko biztanleen heriotza-kausa (GNS-10),
sexuaren aranera. 2021**



Nahasmendu mentalen eta portaeraren nahasmenduen nagusitasuna hiltzeko kausa gisa handiagoa izan zen 70 urtetik aurrerako emakumeetan (% 11,3) gizonetan baino (% 6,6). COVID-19a hirugarren kausa nagusia izan zen 70 urteko eta gehiagoko gizonetan; adin-tarte horretako heriotza guztien % 8,4 izan zen. 70 urteko eta gehiagoko emakumeetan, COVID-19a adin-tarte horretako heriotza guztien % 6,6 izan zen, bosgarren heriotza-kausa nagusia.


INFO GEHIAGO

2021ean, COVID-19a funtsezko kausa izan zuten 1.682 heriotza egon ziren, guztira; alegia, heriotza guztien % 7,3 urte horretan, 757 emakumeetan eta 925 gizonetan. Ondorioz, 2020ko heriotzak baino % 45,7 gutxiago. COVID-19aren ondoriozko heriotzen % 61,2 80 urteko eta gehiagoko pertsonetan gertatu ziren: COVID-19agatik hildako gizonen % 53,3k 80 urte eta gehiago zituzten, eta, emakumeetan, % 70,8k.

4- Ingurumen-kontzientzia

Adinekoen % 88 ingurumena babesteko neurriak hartzearen alde agertzen ziren 2020an; ingurumenarekiko kezka gora egin zuen adin-talde guztietan 2015etik 2020ra, eta are gehiago adinekoen artean

65 urteko eta gehiagoko pertsonen % 94k esan zuten kezkatuta zeudela ingurumenagatik 2020an, eta % 77, oso kezkatuta. Kezka hori 16 urteko eta gehiagoko biztanleriarena baino pixka bat baxuagoa zen (% 97 eta % 83, hurrenez hurren). Ingurumenarekiko kezka adin-talde guztietan hazi da 2015etik, eta neurri handiagoan adinekoetan.



Iturria: Eustat. Ingurumenaren inkesta. Familiak

2020an, 65 urteko eta gehiagoko biztanleen % 88k ingurumena babesteko neurriak hartzearen aldeko jarrera erakutsi zuten, emakumeen % 87k eta gizonen % 90ek; aldeko jarrera erakutsi zuten, era berean, 16 urteko eta gehiagokoek % 92 inguruk.

Euskal AEko 16 urteko eta gehiagoko pertsonak, ingurumen-irritzi eta -jarreraren, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%). 2020

f t e Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística



	Guztira				Gizonak				Emakumeak			
	Guztira	16-44	45-64	65 eta gehiago	Guztira	16-44	45-64	65 eta gehiago	Guztira	16-44	45-64	65 eta gehiago
Ingurumen iritziak												
Ingurumenaren egoeraz arduratuta												
Guztira	97,2	98,2	98,4	93,9	96,9	97,5	98,1	94,2	97,4	98,9	98,7	93,7
Asko	83,0	83,7	86,7	77,0	81,7	81,1	85,8	76,2	84,3	86,4	87,5	77,5
Ingurugiro kanpainak												
Guztira	61,7	62,8	69,2	49,8	61,9	61,4	68,3	52,4	61,6	64,1	70,2	47,8
Ingurumenaren arazoak	27,3	31,6	30,0	17,2	27,3	28,7	31,1	18,8	27,3	34,5	29,1	16,0
Ingurumen erakundeekiko harremana												
Guztira	25,5	30,8	29,5	12,0	25,6	28,7	29,0	14,9	25,3	33,0	30,0	9,8
Erakundeekin lan egiten du	6,1	7,6	7,2	2,5	5,9	6,5	6,7	3,8	6,3	8,7	7,6	1,5
Boluntario gisa parte hartzen du	5,9	8,6	6,0	1,8	6,2	8,3	6,5	2,1	5,6	9,0	5,5	1,6
Inguruabar kaltegarrien aurka sinatu du	18,1	20,5	22,3	8,6	18,0	19,4	21,3	10,2	18,1	21,6	23,2	7,4
Inguruabar kaltegarrien aurka agertu da	8,1	11,1	8,3	3,2	7,9	9,4	8,8	3,9	8,2	12,8	7,8	2,7
Arazoak salatu ditu	3,6	4,3	4,3	1,5	3,3	3,1	4,3	2,2	3,8	5,5	4,3	0,9
Ingurumen neurrien aldekoa :												
Guztira	91,7	92,6	93,2	88,4	92,2	92,8	93,0	89,8	91,3	92,4	93,4	87,2
Etxeko hondakinak bereiztera behartzea	48,7	51,0	45,4	49,7	49,9	52,0	46,7	51,4	47,5	50,0	44,2	48,4


Data 2021eko Ekainaren 23a

Iturria: Eustat. Ingurumenaren inkesta - Familiak

INFO GEHIAGO

Adinekoetan, ingurumena babesteko honako neurri hauek izan zuten adostasun gehien: trafikoaren zarata murriztea (% 73), uraren gehiegizko kontsumoa murriztea (% 63), erregaiei zerga bat ezartzea (% 56), etxeko hondakinak bereiztera behartzea (% 50) eta energia berriztagarrien gaitasuna areagotzea (% 49). Adostasun gutxieneko neurria ordezeko energiengatik prezio handiagoa ordaintzea izan zen (% 23).

Euskal AEko ingurumena babesteko neurrien aldeko 65 urteko eta gehiagoko pertsonak, neurri motaren arabera (%). 2020



Iturria: Eustat. Ingurumenaren inkesta. Familiak

2020an, 65 urte eta gehiagoko biztanleen % 12k adierazi zuen nolabaiteko harremana zuela ingurumen-erakundeekin; 2015ean, berriz, % 14k. 2020an, erakunde horiekiko harreman ohikoenak egoera kaltegarrien aurkako sinatzea (65 urte eta gehiagoko pertsonen % 9) eta egoera kaltegarrien aurkako adierazpena (% 3) izan ziren.


2020an, 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren bi pertsonatik batek ingurumena babesteko kanpainen berri izan zuen; 2015ean, berriz, hirutik bat baino ez zen izan. Adinekoen % 17k inguruan ingurumen-arazoak zituela hauteman zuen 2020an, eta zifra hori % 13koa zen 5 urte lehenago.

5-Interneten erabilera

2021ean Internet erabili zuten 65 urteko eta gehiagoko pertsonen ia % 100ek komunikazio-zerbitzuak eta informazioa eskuratzeko zerbitzuak erabili zituzten, eta horien artean WhatsApp-a eta mezularitzako beste aplikazio batzuk nabarmentzen ziren

15 urteko eta gehiagoko biztanleen % 85ek Internet erabili zuten 2021ean: emakumeen % 83k eta gizonen % 87k. 64 urtetik gorakoen ia erdiek (% 49) Internet erabili zuten urte horretan: adin-tarte horretan, Interneten erabileran sexuen artean dagoen ehuneko 8 puntuko arrakalak (emakumeen % 46 eta gizonen % 54) bikoiztu egiten zuen arrakala biztanleria osoan.

Euskal AEko azken 3 hilabeteetan Internet erabili duten 15 urte eta gehiagoko biztanleak, arrazoi partikularrengatik erabilitako zerbitzu-motaren arabera, adin taldeari jarraiki (%). 2021



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Familiak

[INFO GEHIAGO](#)

Internet erabili zuten 65 urteko eta gehiagoko ia biztanle guztiek (%99,9) komunikaziorako eta informazioa eskuratzeko zerbitzu gisa baliatu zuten. WhatsApp-en eta berehalako mezularitzako beste aplikazio batzuen erabilera nabarmentzen da; emakumeen % 96 eta gizonen % 91.

Euskal AEko 15 urte eta gehiagoko azken 3 hilabeteetan Internet erabiltzaile biztanleak, arrazoi partikularrengatik erabilitako zerbitzu-motaren arabera, adin-taldei jarraiki (%). 2021

f t e Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística



	-Euskal AE					Gizonak					Emakumeak				
	Guztira	15-24	25-44	45-64	65 eta gehiago	Guztira	15-24	25-44	45-64	65 eta gehiago	Guztira	15-24	25-44	45-64	65 eta gehiago
Erabiltzaile guztira (milakotan)	1.602,6	212,1	504,6	641,3		244,6	790,5	110,4	249,1	317,0	113,9	812,1	101,7	255,5	324,3
Erabiltzaile guztira (ehunekoa)	84,9	99,4	99,4	95,7		49,3	87,2	98,9	99,4	95,2	54,0	82,8	100,0	99,4	96,1
Erabilitako zerbitzu mota: :															
Komunikazioa eta informaziorako sarbidea: :	99,9	99,9	99,9	100,0		99,6	99,8	99,8	99,8	99,9	99,5	99,9	100,0	100,0	99,9
Posta elektronikoa jasotzea edo bidaltzea	82,4	95,6	93,1	82,7		48,3	82,9	94,6	91,9	81,6	55,8	81,9	96,7	94,3	83,7
Telefonoz deitzea edo bideo-deiak egitea	59,9	75,2	72,0	54,2		36,8	55,2	71,3	66,8	47,7	35,4	64,5	79,4	77,1	60,6
Sare sozialetan parte hartzea	53,9	87,6	71,9	43,5		14,9	51,1	84,4	66,4	40,6	14,0	56,7	91,0	77,3	46,4
Gaurkotasuneko albisteak, egunkariak edo aldizkariak irakurtzea	74,9	67,2	84,4	75,7		60,3	77,1	70,2	85,1	76,8	67,0	72,9	64,0	83,6	74,6
Ondasun edo zerbitzuei buruzko informazioa bilatzea	63,3	61,1	70,5	64,1		48,2	64,6	58,2	71,9	65,0	53,6	62,0	64,2	69,2	63,2
WhatsApp edo berehalako mezularitzako beste aplikazio batzuk	97,5	98,0	98,4	98,1		93,5	97,0	98,8	98,6	97,4	90,9	97,9	97,1	98,1	98,8
Entretanimendua eta sormena: :	83,3	97,9	95,7	81,0		51,3	85,1	97,6	95,9	82,8	56,1	81,5	98,3	95,4	79,2
Jokatzea edo jolasak deskargatzea	29,1	56,5	33,8	22,3		13,8	31,9	70,5	40,9	18,2	13,3	26,4	41,3	26,9	26,3
Musika entzun	55,5	81,9	70,6	47,7		22,0	57,4	78,1	70,8	50,5	27,1	53,7	86,0	70,4	44,8
Telebistako saioak ikustea	30,8	48,7	39,1	26,1		10,8	33,2	46,1	42,4	29,4	11,3	28,6	51,5	35,9	23,0
Eskariaren arabera filmak edo bideoak ikustea	47,7	71,9	63,0	40,1		15,2	50,0	70,1	65,4	41,8	19,5	45,5	73,7	60,7	38,5
Partekartzeko Webguneen bideo-edukiak ikustea	68,2	89,3	84,1	61,7		34,5	70,8	92,4	84,5	64,0	38,5	65,8	85,7	83,6	59,4
Partekartzeko web orri batean eduki propioak jartzea	19,8	48,8	27,2	10,7		3,3	18,0	46,1	21,8	10,2	3,9	21,5	51,7	32,3	11,2
Osasuna	52,5	45,0	60,9	55,2		34,3	48,7	39,0	54,2	52,4	35,9	56,1	51,4	67,4	58,0


(*) Azken 12 hilabeteetan erabilitako zerbitzuak: gainerako zerbitzuetan, denbora-erreferentzia azken 3 hilabeteetan dago.

Data 2021eko Irailaren 30a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Familiak

Erdiak baino gehiagok (% 51) entretenimendurako eta sormenerako erabili zuten (emakumeen % 47 eta gizonen % 56), eta % 34k, osasuna kudeatzeko tresna gisa, informazioa bilatzeko eta, neurri txikiagoan, medikuarekin hitzordua eskatzeko.

Internet erabili zuten adenekoen % 26k, gainera, administrazio elektronikoa erabili zuten: gizonen artean erabilera hori (% 36) bikoiztu zuen emakumeena (% 18).



Adineko pertsonak nabarmen erabiltzen zituzten Interneteko beste zerbitzu batzuk hauek izan ziren: banku elektronikoa (Internet erabili zuten emakumeen % 31k eta gizonen % 45ek erabili zuten banku elektronikoa); eta, produktuak edo zerbitzuak erostea, Internet erabili zuten emakumeen % 12k eta gizonen % 13k, hurrenez hurren.